

Sortzaile berriak zirikatzeke, DEIAk euskarazko komiki lehiaketa antolatu du

BILBO. Bilboko Rekalde Aretokak eta DEIA egunkariak I. Rekalde-Ortzadar Komiki Lehiaketa (KMK) abiarazi dute, euskal sor-tzaileak zirikatu eta goraka doan generoari hauspoa eman guran. Aspaldiko joerari eusten dio honela larunbatetako Ortzadar gehigarriak, kaleratu zen lehenengoko urtean bertan (1997an) literatur lehiaketa bat aurkeztu baitzuen; orduko hartan Unai Elorriagak irabazi zuen sari nagusia.

Atzo egin zen KMK lehiaketaren aurkezpena, Foru Liburutegiak Bilboko bihotzean duen Areto Nagusian, eta bertara hurbildu ziren Jon Iñaki Zarraga (Aldundiko Kulturako zuzendari nagusia), Josune Ariztondo (Kulturako Foru diputatua eta Rekalde Aretoko presidente), Alicia Fernández (Rekalde Aretoko zuzendaria), eta Iñaki Mendizabal Elordi (Ortzadar gehigarriko arduraduna).

Liburutegiko Areto Nagusia komiki sariketa berria aurkezteko leku ezin hobea zela azpimarratu zuen Josune Ariztondok bere agerraldian: 'Aretoa Bizkaiko ilustratzaileen odisea grafikoa erakusten ari den unean egokia dirudi era honetako lehiaketa bat aurkeztea. Ezin hobeto uztartzen dira bi gauzak'. Ilustratzaileak Bizkaian (XVI-XX): Odisea grafikoa-ri buruz ari zen Kulturako Foru diputatua, eta une 'apropos' hori Rekalde Aretokaren gurariak eta helburuak nabarmentzeko erabili zuen: 'Erakundeon lana da sorkuntza susta-tzea, balio berriak agerian jartzea, beraiei horretarako aukerak eta erraztasunak ematea. Rekalde-Ortzadar Komiki Lehiaketa ildo horretatik doa, eta ondo erantzuten dio helburu horri, ilustratzaileen erakusketak eta Bizkaidatz lako egiasmoak egiten duten legez'. Estreinakoz antolatzen den komiki lehiaketak jarraipena izango duela agindu zuen Ariztondok: 'Gauzak ondo badoaz, izango du jarraipenik, bai, bokazio horrekin jaio baita'.

REKALDE ARETOAREN ITZALA

Rekalde Aretokak lehiaketa berriari eskaintzen dion babesaren ezinbestekoa dela esan zuen DEIAk astero kaleratzen duen Ortzadar gehigarriko arduradun Iñaki Mendizabalek: 'Rekalde Aretokaren esku-hartzea itzela da, eta harro gaude horregatik, DEIA eta Rekalderen arteko elkarlanak emaitza oso onak ekarriko dituelako. Rekalde Aretokarekin izateak, bere babesak, balio ikaragarria erantzen dio ekimen berriari, aberastu eta indartu egiten duelako, era berean presentzia eta pisua ematen diolako. Urte askotan luza dadila hartu-eman interesgarri hau'.

Mendizabal esker oneko agertu zen Rekalde Aretoko arduradunekin, eta aipatu 'balio erantsiaren' nondik norakoak aletu zituen: 'Badira komiki lehiaketak sari ugari ematen dituztenak, hori badakigu, baina guk bestelako pizgarriak eskaintzen ditugu. Esaterako, Rekalderen azaroan egingo den erakusketa, edo Rekalderen bertan data horretan egingo diren tailerrak, bertako gidoilari eta marrazkilariekin egingo direnak. Irabazleak eta lanik aipagarrienak erakutsiko dira Rekalderen, eta egileek tailerretan parte hartzeko aukera izango dute. Hori diru-saria bera baino interesgarriagoa izan daiteke, ezta?'. Lan onenekin liburu bat argitaratuko dela ere esan zuen Ortzadar gehigarriko arduradunak.

WARHOLEN ARRASTOA

Rekalde Aretoko zuzendari Alicia Fernándezek artisten eta komikiaren arteko aspaldiko erlazioa aipatu zuen. '60. hamarkadatik dator, bai. Pop artean, esaterako, hor dugu Andy Warhol. Komikia arte mailara igo zuen, garaiko giro intelektualetan sartuz, eta bere lanetan publizitatea, ilustrazioa eta komiki zerrendak erabiliz. Komikia azpi-produktu bat bezala ikusi izan da askotan, baina gaur egun hartu du bere lekua, eta bederatzigarren artea legez dauka jende askok'.